# Gazte Mailako VI. Aurresku txapelketa nagusia

(Gipuzkoar erara)

**Maiatzak 18 - D saila**

17.00etan, Legazpiko azokan

**Maiatzak 25 - A eta B sailak**

17.00etan,
Errenteriako Niessen
kulturgunean

Antolatzaileak

SUSTRAIAK DT · LEGAZPIKO UDALA · EREIN ELKARTEA · GIPUZKOAKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

Laguntzaileak

ERRENTERIA UDALA · KULTURA kreaktiboa · Gipuzkoako Foru Aldundia · ETORKIZUNA ORAIN Es futuro

## 1. SARRERA

90. hamarkadan, Aurresku liga antolatzen hasi ginen, helburu zehatz batzuekin:

- Haurrek txikitatik, Gipuzkoako dantzen urratsen teknika landu eta ezagutzea.
- Haurrak, dantza talde nagusietara iristerakoan, gazteek duten mailari eta esperientziari dantza taldeak indartzea.

Urte guzti hauen ondoren, egiten den balorazioa oso ona da. Bi helburu hauek ezin hobeto lortzen ari direla pentsatzen dugu eta horregatik, liga antolatzen jarraitzen dugu.

Helburu berdinak mantendu arren, urte hauetan aldaketa eta berrikuntzak egon dira antolaketa mailan; esanguratsuenak honako hauek izan dira:

1. Liga bateratua: Hau da, sexu banaketarik ez da izango. Aurretik, nesken liga bat egiten zen eta mutilen beste liga bat. 2018-19 ikasturtetik aurrera, banaketa soilik adinaren arabera izan da.

2. Dantzarien alderdi pedagogikoa indartu nahi dugu. Txapelketa bakoitzean, aditu batek, dantzariek oinarrizko dantza pausoak nola egiten dituzten jaso dute. Datu horiek bildu eta txosten bat egin da dantzari bakoitzeko.
Informazioa dantzarien dantza irakasleei luzatzen zaie, zuzendu beharreko akatsak dantzariekin landu ahal izateko.

## 2. 2023-24 AURRESKU LIGA

### 2.1. Egutegia.

Hauek dira, urtean zehar ospatu diren kanporaketak (Data/udalerria):

- Urtarrilak 13: Legazpi.
- Urtarrilak 28: Villabona
- Otsailak 25: Oiartzun.
- Martxoak 12: Elgoibar.
- Martxoak 24: Hernani
- Apirilak 20: Lezo



*Apirilaren 24an Hernanin jokatutako kanporaketaren parte harztaileak*
*Argazkia: Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra*

## 2.2. Parte hartzea

Ligan parte hartzeko baldintzak honako hauek izan dira.

1. 2009 eta 2016 urteetan zehar jaio izana.
2. Dantza irakasleek eta dantza epaileek osatzen duten Aurresku komisioak ezarritako dantzak aurkeztea.

Ikasturtean zehar, Gipuzkoako 15 udalerrietako eta Nafarroako 2 udalerrietako 70 neska-mutilek parte hartu dute liga honetan: Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Andoain, Areso, Asteasu, Astigarraga, Elgoibar, Errenteria, Legazpi, Lezo, Lizartza, Oiartzun, Pasaia, Tolosa eta Zizurkil.

Jaiotze urtearen arabera 3 kategorietan banatu dira:

- A kategoria: 2014-2015-2016 urteetan jaiotako neska-mutilek.
- B kategoria: 2011-2012-2013 urteetan jaiotako neska-mutilek.
- D kategoria: 2009-2010 urteetan jaiotako neska-mutilek.

Eta saila bakoitzean dantzariek prestatu beharreko dantzak hauek izan dira:

- A kategoria: Ormatxulo eta Agurra.
- B kategoria: Hondarribi handia eta Legazpi Zortzikoa.
- D kategoria: Betronio handia eta Aurkez aurke (desafioa).

**2.3. Funtzionamendua**

Saila bakoitzeko dantzariak sailkatze txapelketa batzuetan parte hartu du. Txapelketa horietan lortutako sailkapenaren arabera, puntu batzuk eskuratu ditu.

Puntuazio horiek batuta ligaren sailkapena osatuko da eta ongien sailkatutako dantzariek finalean, hau da GAZTE MAILAKO AURRESKU TXAPELKETA NAGUSIA-n parte hartzeko aukera dute (kopurua ezberdina izan da saila bakoitzeko).

Sailaren arabera, hauek dira finalerako sailkatu diren dantzari kopuruak:

- A saila: 12 dantzari
- B saila: 12 dantzari
- D saila: 14 dantzari.

Erregulartasuna premiatzeko asmoz, saila bakoitzeko liga irabazleak, trofeo bat jasoko du .

- A saila: Lur Lacasta (Lezo)
- B saila: June Aguado (Amasa-Villabona)
- D saila: Jurgi Errandonea (Andoain)

## 3. GAZTEEN MAILAKO VI. AURRESKU TXAPELKETA NAGUSIA

### 3.1. Oinarri orokorrak

Datozen Maiatzaren 18an eta 25ean, **GAZTE MAILAKO VI. AURRESKU TXAPELKETA NAGUSIA** – Gipuzkoar erara - ospatuko da, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak, Sustraiak Dantza Taldeak, Legazpiko Udalak Erein Elkarteak antolatuta, eta Errenteriako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

**TXAPELKETAK**

Maiatzaren 18an, arratsaldeko 17.00etan, Legazpiko azokan, D sailaren (2009 eta 2010 urteetan jaiotakoak) txapelketa ospatuko da.

Maiatzaren 25ean, arratsaldeko 17.00etan, Errenteriako Niessen Kulturgunean, A sailaren (2014, 2015 eta 2016 urteetan jaiotakoak) eta B sailaren (2011, 2012 eta 2013 urteetan jaiotakoak) txapelketak ospatuko dira.

**PARTEHARTZEA**

2023-24 Aurresku ligan sailkapenaren arabera lortuko da txapelketa hauetan parte hartzeko aukera. Saila bakoitzeko ongien sailkatutako ondorengo dantzari kopuruan:

- A saila: 12 dantzari.
- B saila: 12 dantzari.
- D saila: 14 dantzari.

Txapelketa hauen dantza-ordena erabakitzen duen zozketa ordena Maiatzaren 9an egingo da Gipuzkoako EDBren egoitzan.

Bajaren bat balego, erreserban dauden dantzariei parte hartzeko aukera emango zaie, sailkapenaren ordena jarraituz.

## EPAIMAHAIA

Epaimahaiak, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak izendatuko ditu.

## DANTZAK

A saila: Ormatxulo eta Agurra.

B saila: Hondarribi handia eta Legazpi zortzikoa.

D saila: Betronio handia, Aurkez aurke eta Xamurra kontrapasa.

## JANZKERA

Dantzariek Gipuzkoako ohiko jantziaz hornitua dantzatu beharko dute.

## SARIAK

**A. saila:**

1. Saria: Buruzagi makila, Txapela eta garaikurra.

2. ,3. , 4., 5., 6. Saria: Trofeoa

Gainontzeko dantzariek, oroigarria jasoko dute.

Sari bereziak:

- Irabazlearen irakasleari oroigarria.
- Liga irabazleari oroigarria.
- Ongien sailkatutako herriko dantzariari oroigarria.

**B. saila:**

1. Saria: Buruzagi makila, Txapela eta garaikurra.

2. ,3. , 4., 5., 6. Saria: Trofeoa

Gainontzeko dantzariek, oroigarria jasoko dute.

Sari bereziak:

- Irabazlearen irakasleari oroigarria.
- Liga irabazleari oroigarria.

- Ongien sailkatutako herriko dantzariari oroigarria.

**D. saila:**

1. Saria: Buruzagi makila eta garaikurra.

2. ,3. , 4., 5., 6. Saria: Trofeoa

Gainontzeko dantzariek, oroigarria jasoko dute.

Sari bereziak:

- Irabazlearen irakasleari oroigarria.
- Jantzi egokienari saria.
- Liga irabazleari oroigarria.
- Ongien sailkatutako herriko dantzariari oroigarria.

**3.2. Parte-hartzaileak eta dantza ordena**

**A. saila:**

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Gorane Villa | Lezo |
| 2 | Amira Zabaleta | Lezo |
| 3 | Araitz Mantxola | Legazpi |
| 4 | Amaiur Iturbe | Lezo |
| 5 | Lur Lacasta | Lezo |
| 6 | June Romero | Lezo |
| 7 | Nora Lafuente | Legazpi |
| 8 | Udane Etxebeste | Errenteria |
| 9 | Ane Perez | Lezo |
| 10 | Hugo Haro | Lezo |
| 11 | Irati Perez | Lezo |
| 12 | Xabier Nabaskues | Donostia |

**B. Saila:**

| | | |
|---|---|---|
| 1 | June Aguado | Amasa-Villabona |
| 2 | Naroa Arteaga | Amasa-Villabona |
| 3 | Nora Davila | Zizurkil |
| 4 | Aiara Aburuza | Aduna |
| 5 | Jon Alberdi | Legazpi |
| 6 | Ixone Lorenzo | Lezo |
| 7 | Araitz Berasategi | Legazpi |
| 8 | Mairi Maya | Errenteria |
| 9 | Enara Aranburu | Amasa-Villabona |
| 10 | Nora Escudero | Legazpi |
| 11 | Unax Ansola | Elgoibar |
| 12 | Judith Jacinto | Lezo |

**D. Saila:**

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Naroa Del Rio | Tolosa |
| 2 | Onditz Esnaola | Lizartza |
| 3 | Uxue Cabrera | Elgoibar |
| 4 | Irune Azpeitia | Legazpi |
| 5 | Jurgi Errandonea | Andoain |
| 6 | Irati Larrañaga | Andoain |
| 7 | Maria Sanchez | Legazpi |
| 8 | Ihintza Erauskin | Lezo |
| 9 | Danel Castillo | Pasai Donibane |
| 10 | Naia Amorena | Astigarraga |
| 11 | Amane Uranga | Tolosa |
| 12 | Julen Lertxundi | Asteasu |
| 13 | Jone Arretxe | Amasa-Villabona |
| 14 | Lide Sarasola | Zizurkil |

**3.3. Epaimahaia.**

Gipuzkoako Dantzarien Biltzarrak izendatutako epaimahaiak modu honetan osatuko dira:

D saila:

- Jose Luis Vallejo (Tolosa)
- Maria Ferreiro (Elgoibar)
- Nahikari Vizuete (Lezo)

A eta B sailak:

- Idoia Besada (Pasaia)
- Nagore Indakoetxea (Errenteria)
- Xabier Mendizabal (Donostia)

### 3.4. Musikariak

Bi saioetan, txistulari talde hauek izango dira dantzariei musika jartzeaz arduratuko direnak:

- Legazpiko Goiz deia txistulari taldea.
- Errenteriako Udal txistulari taldea.

### 3.5. Atsedenaldiko emanaldia.

Bi saioetan ere, epaimahaiak azken erabakia hartzen duen birtartean, haur dantza taldeen emanaldi bat eskainiko da.

Maiatzaren 18an, Legazpin, Sustraiak dantza taldeko gaztetxoek Zinta dantza eskainiko dute eta maiatzaren 25ean, berriz, Errenterian, Herri Arte dantza eskolako euskal dantzako ikasleek Sorgin dantza eta Zuberoako Makil dantza.